

OLENTZAROS EI KARRIZKETA*

Elkarrizketagilea: J. F. Setien

«Jaunaren Deia»k D. Jose Migel Barandiaranen gana hurbiltzeko egokiera izan du, eta beharra, baldin zenbait puntu Olentzaroz argituko bazituen. Ohi bezala bere lanetan murgildurik ari zen joan nintzaionean, baina denak bertan behera utzirik, txeratsu, esan beharrik, hartu nau. Luzaz mintzatu gara Olentzaroz, eta zertaz ez? hainba gauza aipatu ditugu-eta. Bere bizitzako gora-behera, gertakari, pasadizo nahiz ataka xehetasun guztiz emango dizkizu hark beti. Funtsean, jakintsu izatez aparte, badu gizon ospatsu honek beste bertute bat galanta: edozeinen parean jartzeko gai dela, eta horregatik ez duzu beldur izpirik sentitzen zernahi galde berari egin ahal izateko.

Lazkaoko Beditarrak argitaratua *Jaunaren Deia*-n. Arrez eskematxo bat prestaturik nuen galdeak luzatzeko, baina egia esan, hainbat gauza ditu esateko, hain xeheki puntu bakoitza hornitzeko gai den gizonaren aurrean gertatzen zara, non mementoan, ahal den daturik gehiena hartu, eta gero horiek ordenatzeko eginkizuna baizik ez zaizu gelditzen. Hona zertan izan den neure iharduna.

OLENTZARO

Indoeuroparra ala hemengoa den.
Sorrera, noiz eta nola agertzen den.
Olentzaro hitzaren formak, sustraia...
Olentzaroren eremua, eske kantuak.
Olentzaro eta kristau mezua.

—J. D.: Nahi baduzu, D. Jose Migel, lehenengo puntuari helduko diogu. Bai ahal du indoeuropar kulturak Olentzarorekin ikustekorik?

* *Honako aldizkari honetatik aterata: Jaunaren Deia 67-58, orrialdeak 89-100, Lazkau: Beditarrak.*

—D. J. M.: Nola ez bada! Zer ikusi handia du benetan Euskal Herriak sineste arazoan, hizkuntza alorrean, etab. indoeuoparren eraginarekin. Bederen duela 4.000 urtez geroztik.

Hona esaterako, astearren ortzegun, ortziral... izenok, Jainkoari buruz ari dira, eta hauen sustraia indoeuopar kulturaren bilatu behar da nahiz-eta hitzen forma arrunt euskalduna den. Indoeuoparren eragina Asian, Eslabo herrietan eta European zehar aski gauza nabari da.

—J. D.: Beste adibiderik honen lekuko eta argigarri?

—D. J. M.: Izango ezta bada? Asko. Hara, oinazkarra, oinaztarra, ozme-harria (oz-me-harri: ortzi-meatz-harri, Saran), oneztu / oneztarri (Gernikan)... tximista eta aire gaiztoa adierazteko erabiltzen diren hitzak dira. Ez dira hitzok indoeuoparrak, ez, baina esanahiaren eragina oso zabaldua da indoeuopar herrietan, germano herrietan batipat. (Erromatarren Jupiter aipatzen du hemen). Izan ere oinaztarrarekin harri bat lurrera jausten eta sartzen zelako ustea bait zuten. Horregatik da oineztarri, oinatzarri, ozmeharri, tximistarri... hitzen izatea gurean.

Hala, esaunda bitxi bat bada gure artean: «Zazpi estatuz (aintzinako neurri bat) sartzen da lurtean, eta urteoro estatu bat ateratzen. Zazpigarrenean hel-tzen lurrazalera».

Arabako herri batetan, Otazun hain xuxen, aurkitu nuen harleun bat erakutsiko dizut (jeiki eta harriaren bila doa). Hantxe, etxe batetan, sarrerako atalgainaren xokoan zegoen. Funtsean, ikus dezakezunez, eneolitos haroko haizkora bat, hots, oineztarria.

—J. D.: Eta zer bertute zuen harri onek?

—D. J. M.: Oinazkarraren kontrako babes. Egungo gure tximistorratz edo pararrayos delakoaren gisako (irribarrez) zerbait, horra. Gainera, zenbait lekutan orain, harleunduzko haizkorarik ez denez, altzeiruzkoa, ahoz gorat, ezarri ohi dute.

—J. D.: Begien bistan da, beraz, indoeuoparren eragina euskal ingurumunduan. Hala ere, izena, deitura, euskaraz ezarri zizkioten gure arbasoek.

—D. J. M.: Ez da izenaren kontua bakarrik. Esanahi eta errealitateari buruz ere ez daiteke dena indoeuopar kulturaren fruitu izan denik esan. Esate baterako, neolitos garaian hasten da gizakia abereak hezten. Ezin uka abeltzaingoaren alorrean ere indoeuoparren eragina, baina gure kasuan euskal izena daramate abereok: zaldi, behi, zezen, ahuntz, urde, etab. Izena, eta izana ere bai. Hemen bereko basa-ihizeak bait ziren, lekuko animalia salbaiak ziren nolani ere lehen euskal gizonak eskurakoitu abereak. Eta hontan ez da batere dudarik, gure haztarnategietan hainbat betitzu, pottoka,... hezur hatxeman denez gero.

—J. D.: Eta euskarari buruz zertan datza gure errealitatea?

—J. J. M.: A, euskararen arloa fenomeno berezia da. Eta are, gure kultura, hedatukiago harturik ere, gauza bera esan daiteke. Ehizia eta trashumantzia ditugu ibilgailurik nagusienak. Hilobiak dituzu lekuko: Urbasa, Andi mendiak,

Haizkorriko trikuharriak (jentilarriak deitzen hemen). Har kontutan bizpahiru ohar:

—Bata, gaur egun oraino gure artzainak bizi diren eta okupatzen dituzten eremuak, eta aintzinako artzainak lurralde beraren gain kokatzen zirela.

—Ardi mota bera zela garai batetan (1) hasi Dordoñatik eta, Akitania osoan zehar, Santander nahiz Asturias alderaino.

—Eta altxubideak (Zuberoan), altxonbideak (Erronkarin), dena den artzainbide edo artalde bideak esan nahi da, zer nolako garrantzia, jo batera eta jo bestera, ibiltzeko abereak, eta abereekin batera gizakiak ere bai.

Hortik dio, eta ausarki baieztan autore honek kultura berbera zela nagusi aipaturiko eremu (Dordoña-Akitania-Santander, Euskal Herria barruan) guzti horretan zehar. Eta halaxe da izan ere. Eta batipat goi paleolitos garaian.

—J. D.: Zuk puntu hau ongi hausnarturik duzunez, eta neri gure kulturaren alderdi garrantzitsu bat iduri zaidanez, emango ahal zenidake xehetasun gehiagorik?

—D. J. M.: Bai, noski. Eta gainera, zenbait froga begien bistan ageri da ere. Ene ustez nagusienetariko bat: artegintza paleolitikoa, eta han erakustera ematen den gizabidea (humanismoa adierazi nahi zuen hitz honekin) eta erlijioaren zentzua bera. Azken puntu honetaz, indoeuoparren erlijioaz alegia, ikus ezazu Leopold von SCHROEDER: «Arische Religion» delako liburuan autore beronek dioena: «Nondik ote indoeuoparren ezikera edo kulturak halako garrantzia, hemen berean goi paleolitos garaian zen lekuko ezikeraren edo kulturaren eraginez kutsatua izan ezik?»

Halatan bada, benetako kultur harremana gertatu zen haien eta geure artean. Indoeuoparrek beren kultur eragina ezarri zuten bai gurean, baina berdin gertatu zen alderantziz, gurearen eragina haiek jasan edo bereganatzeko kasuan ere.

—J. D.: Ikus dezagun orain, marko inguru horretan, Olentzaroren irudia.

—D. J. M.: Olentzaro aipatu aurretik, garrantzi handiko bi elementu aipatu nahi nituke: eguzkia eta sua.

—*Eguzkia*. Eguzkia, eta berebat hilargia, mito, sineste eta ohitura askoren iturburu da euskal kulturaren barne. Baina hontan ere gauza nabaria da indoeuoparrekin duen zer ikusia, beraien artean ere ardatz bezala gertatzen bait da eguzkia. Eta eguzkia, memento bitan ikusi behar da bereziki: Uda hastapenetan (San Joanetan), ekainean (eguzkia gainean den egunetan), eta neguaren hastapenetan (Eguberritan), eguzkia berri den sasoinan.

—*Sua*. Suaren kasua da beste elementu nagusia. Nik ez dut Euskal Herrian kulturaren ageri den elementu asko indoeuoparrek direla esango, baina ezin uka hauetan ematen den indoeuopar eragina. Eta esan dezagun, sua, indoeuoparren artean, leku guztitan ematen dela eta kontsideratzen garrantzizko kultur faktore bezala.

(1) Ikus CAVAILLES: *La transhumance Pyrenéenne et la circulation des troupeaux dans les plaines de Gascogne* liburua.

—J. D.: Hori horrela, zertan datza eguzkiaren eta suaren arteko kidesasuna, zure ustez?

—D. J. M.: Esango dut, zer nolabait ere, eguzkiaren iduriko errealitatea duzu. Eta horregatik, ageri zaigu sua Eguberitan. Beti ere nola besta oro bezperatik hasten den, Eguberri bezperan, Gabon zuzia (Zegaman adibidez). Eta berdin San Joan sua, haren besta bezperan eta udako atarian.

Bestelako suak ere badira, baina bi memento edo sasoin bereziotan batipat: San Joan, ekain ekainean gertatzen den besta, eta Eguberritan, edo honi atxikirik den urteberri, urtats... (urtarrila ere hortik heldu da). Zenbait lekutan, suarekin lotzen dute Olentzaro bera, Araban adibidez, eta bestalde, hor be-rean, izenez Olentzaro deitzen ez badute ere, Olentzaro garbiki ageri den eremu-
an duen aditzera berbera dauka funtsean.

—J. D.: Olentzaro hitza, eta hitzaren etimologia nondikakoak ote ditugu? (galdegin diot gero, agian haria mozten diodalarik).

—D. J. M.: Baduzu nere lantxo bat «Egan» aldizkarian emanik. Aski duzu, hartaz zenbait xehetasun biltzeko, hura ikustea.

OLENTZARO (1)

Izena: diferenteki azaltzen.

—Olentzaro / Olentzero (Orexa, Lesaka, Arakil, Donostia, Oihartzun eta Beran).

—Orentzaro (Zarautzen).

—Orantzaro (Leitzan).

—Onontzaro (Berastegi eta Larraunen).

—Onentzaro (Andoainen).

Esanahia:

—Hitz konposatua: Olen eta aro.

—Olen: Noel hitzaren trasportakuntza? Ala Abenduko «O» antifona delakoan ondorio?

—Aro: garaia, sasoina. Adib. zartzaro, urtaro, subilaro...

—J. D.: Esango ahal zenidake noiz eta nola ote den Olentzaroren sorrera?

—D. J. M.: (Bizkorki mintzo delarik, ekin dio berriro eta hariari heldu ene ustez): Norbait berezia eta aintzinatikoa da agian Noel, baina esan gabe doa guztiz aintzinako dugula ere gurean Olentzaro. Eta bestalde, giza iduriz jantzi-
riko pertsonaia agertzen zaigu zenbait lekutan.

Hemen, Goiherrian, galdu egin zen nonbait, izena beintzat, nahizta jentil bat edo mairu bat zela esan ohi dute toki batzuetan. Beste izen bat izanzen zuen agian, baina ez da haztarren handirik azaltzen. Galdurik zen nolnahi ere. Berterrian bai, bizirik iraun du, eta kostaldean, berdin Nafarroa Garaian ere. Eta are, Jaitz (Salinas de Oro erdaraz) deitu herrian, Lizarratik harat den herri honetan bildua dut historio hau: Ujanjuren historia alegia.

(1) Ikus J. M. Barandiaran: *Olentzaro, kalerre eta subilaro* EGAN 5-6, 1956 urte. Berebat, J. F. Setien: *Olentzaro*, Ikastola Liburutegia, Gordailu, 1972.

Ujanju, urteak zenbat egun hainbat begi dituen pertsonaia da. Gauza bera diote Larraunen, baina diferentzia batekin, Olentzaro deitzen dutela hemen delako pertsonaia hau. Funtsean, urtearen iduria ematen du aditzera nola Jaitzen Ujanjuk hala Larraunen Olentzarok. Egunean begi bat galtzen du; urte zaharrez azkenekoa, eta urtatsez, beti ere, begi oroz horniturik azaltzen omen.

Hariari jarraikiz, Ojano, Santander-en, mendiko basajaun bati deritza. Agian, oihan hitzetik heldu da etimologia, zeren zenbait lekutan oraino oihan erabiltzen bait da baso hitzaren ordainez. Dena den, izenak, ez da dudarik, basajaun duela esanahia.

Eta beste gauza bat: Olentzaro —eta hau konstante bat dela ezin uka—, alde guztitan nonahi delarik ere, menditik edo basotik heldu dela esan ohi da.

—J. D.: Olentzaro, maiz askotan, pertsonaia musugorri, edale eta tripazain handi bat bezala presentatzen da. Hala nola zenbait kantutan: «bat arratsean edan omen du hamar erreuko zahagia», «Olentzaro guria ezin dugu ase, bakarririk jan dizkigu hamar txerri gazte», etab. Zergatik ote horrela?

—D. J. M.: Bai, halaxe da. Gose dela, egarri dela eta hordia bezala agertzeraren ematen dute, egia. Baina ez dut uste bereizgarri hori berezko duenik. Zenbait sailduren besta eta horrelako kasutan ere gauza beretsua gertatzen bait da. Hori horrela, Olentzaro besta ospatzeko, lukainka, arraultze, intxaur, sagar edo diru eskea egiten delarik, eskeko jende honek ezarri dio seguru aski bereizgarri hau eta honek idurikatu du tripontzi tzar bat bezala.

Ene ustez, jatorrago da igitaiarekin, haizkorarekin edo artzain nahiz ikazkin bezala presentatzen den Olentzaroren irudia.

—J. D.: Olentzaroren eremua zabala ahal da Euskal Herrian, eta nola zehaztuko zenuke hedaduraren puntu hau?

—D. J. M.: Hara, punto honetan, diferentzia bat ukan behar kontutan. Lehenik, Olentzaro izenari, hitzari, bagagozkio, ez da hedadura handiko zerbait. Gorago aipaturik dugu, eta Nafarroa Garaia, Gipuzkoako Beterria, eta kostaldea hartzen ditu soilki. Halabaina, badu beste izen ordainik ere: Kalerre (edo galerre) Araban adibidez, eta Subilaro (subil enborra sutan idurikatzen delarik) Goierrian eta Bizkaia aldean, eta bereziki, Xubilaro (Arakil), Suilaro (Sara), Xiularo (Uharte-Hiri), Suklaro (Zaraitzu), etab. Hala, esaunda edo mitoari bagagozkio, fenomeno zabala da eta Euskal Herria guztian zehar aurki daitezke beraren haztarrenak. Oroit beti ere suari eta aldi berean eguzkiari, aipaturik dugunez, atxikirik den fenomeno dugula.

—J. D.: Eta Olentzaro eguneko eske kantuez, zer diozu?

—D. J. M.: Nagusiki, bereizgarri bi eskaintzen dituztela kantuok. Alde batetik, Olentzaro beraren iduria, bizimoldea, dohainak edo kondizio batzuk azaltzen dizkiguten kantu motak dira. Multzo honetan sartzen dugu, adibidez Lesakan mendez mende, haur eta gazteek eman ohi duten kantua:

Olentzaro, buru haundia,
entendimenduz iantzia,
bar arratsean edan omen du
hamar erreuko zahagia.

Ai, urde tripa handia!

Ai, urde tripa handia!

Horra, horra, gure Olentzaro
pipa hartzen duela eserita dago
kapoitxuak badauzka arraultzatxoekin
bihar berendatzeko botila ardoakin.

Eta bestalde, Olentzaro, berriemaile, adierazle edo albistaritzat hartzen duen kantu mota: hala nola Oihartzunen eman ohi dutena:

Olentzaro joan zaigu
mendirara lanera
intentzioarekin
ikatz egitera.
Aditu duenian
Jesus jaio dela
lasterka etorri da
parte ematera.

—J. D.: Aurrera jarraikiz, nola josten ote dira elkarrekin Olentzaro eta kristau mezua, hots, Olentzaro pertsonaia mitologikoa eta Jesus Salbatzailea jaiotzearen adierazle bezala?

—D. J. M.: Esan ditutz lehen, hemen Goiherrian, ez dela Olentzarorik eza gutzen. Baina bada esaunda bat, mito bat xarmanta, Kristoren jaiotza nola jakin zen adierazten duena. Haurtzaroan hainbat alditan entzuna nuen Ataunen, baita gero gaztetan, etnologiaren alorrean sartu nintzalarik, eta bidenabar esan dezadan, ez zuela inolaz eragin tikia izan ni arkeologiaren alorrean gidatzeko esaunda honen zenbait xehetasun neronek egiaztatzeak. Samartindar adineko gizon batek erakutsi zidan lehenik, eta amezketar artzain gazte batek gero, Argaintxabaleta izena duen muino zelaitxoan (Aralarren).

«Hementxe, zioen artzain gazteak, dantzan omen zebiltzen jentilak egun batez. Eta horra non agertzen zaien laino argitsu bat sortaldetik (ekialdetik). Deitu zuten gizon zahar jakintsua, eta honek txabolako atetik lainoari begira: A, ene umeak, jaio dek Kixmi (tximua edo ximinoa esan nahi, eta Kristo izengoitiz). Bota nazazue haitz hartatik behera. Baina lainoa gerturatzen eta jentilak ere izutu ziren eta harri konkorr pila honen (Arraztarango jentilarrria) azpian omen dira denak.

Denak hemen ezkutatu baziren, galdegin nion, nolaz dakigu bada istorio honen berri?

Denak ez, batek alde egin eta honek esan zien beheko jentilei gertatuaren berri.»

Urte oro etortzen omen jentil hori. Hona non ageri den Olentzaroren haztarrena.

Seguran diotenez, Balankalekun (Altsasu-Ataun-Idiazabalen mugetan) gertatua omen.

Akotainen (Idiazabal) izartxo polit baten idurian agertu omen Kixmi jentilei. Urdiainen, Jentileiho delakoan (Laiene haitzetan) bizi jentilek ere izarren bitartez ezagutu zutela Kixmi (Kristo), esan ohi da.

Etxarrin, Andi mendian, sarietan (saroietan) gertatua bezala ematen, baina han elurra aipatzen, eta ez laino edo izarrik. Eta Hernanin, Iturbei mendiko jentilek ere elurra zela medio ezagutu omen. Orozkon, berriz, Olarte hauzoan esan ohi denez, halakoxe lainaide bat izan zen erakusle.

—J. D.: Hortik eta harat, beraz, Olentzaro bilakatu da Jesus jaiotzearen berri emaitzat?

—D. J. M.: Bai, ideia hori era batera nahiz bestera aski zabala da gurean: jentil batek ekarri zuen Kristoren jaiotze berria. Hara, urdiaindar batek (Urbasan topaturik) esan zidan hori lehenbizikoz.

—Nola bada? (nik harriturik), federik bai ahal zuten jentilek?

—Bai guk baino gehiago! Gu baino kristau hobeak ziren jentilak. Elizak-eta nor altxa (eraiki) zituen bada? Gu ez gara kapaz horrelako obra handirik egiteko.

—J. D.: Gerla ondoko giroan hazi eta heziak izan garenok, Olentzaroren irudia arrunt desitxuratua ikusi dugu lehenik, kasik ezkutatzeraino. Olentzaro paganotzat ematen, eta ordainez, ezin uka, Jaiotzak, Belen Elkarte eta Erregeen kabalगतak irabazi dute arrakasta. Gero, herriaren arnasa berriztatu heinean, girotu gara, eta ezagutu Olentzaroren berezko jatortasuna. Non bilatu behar ote desitxuratze horren arrazoi nagusiak?

—D. J. M.: Begien bistan dago neretzat. Agintean ari zen politikaren jokabidea izan da lehen kausa: geure hizkuntza eta kultura bereziaren haztarren oro erauztera jo bait zuten ausarki. Eta ondoren, beldurra. Beldur gaitza izan zen bazterretan.

Hara esando dizut gauza bat. Hamazazpi urtetan egon nintzen ni herbestean, hala mintzo baledi. Behintzat bestaldean, eta hemendik at. Hainbat apezkide banuen hemen, adiskide minak benetan —Gasteizko Seminario eta karguetan zirenez ari natzaizu batipat—, eta inor, inoiz ez zitzaidan bisitatzerara hurbildu. Eta entzun, hurbildu ziren bakarrak ere, beti bidenabar (Lurdes, Erromarako... bidean zihoazelarik).

—J. D.: Haserrea, ezinikusia, gorrotoa edo higuina?

—D. J. M.: Ezta pentsatu ere. Zihur nago: beldurra, beldur ikara gorria zela tarteko.

—J. D.: Etorkizunari buruz, eta kristau ikuspegitik harturik jakina, zer nolako proiektzioa ukan lezake Olentzarok?

—D. J. M.: Olentzaro kristautua, Jesus Salbatzailearen bidalia da, horra. Hitz batetan esanik, Haurtxo Janikoaren mixiolari da. Ohitura, sustrai, kristau mezu... elementuok denak dakazkigu Olentzarok berekin. Baina ohar beti ere Olentzaroren mitoa zabalagoa dela beraren izena eta iduri zehatza baino.

—J. D.: Eskerrik hoberenak, D. Jose Migel, eta urte hainitzetan jarrai horrelaxe!